

Sebastian bat bakarra munduan eta 17 talde Azpeitian

Udalak legedia aldatu du, eta talde gehiagok parte hartzeko aukera izango dute

Azkenean topatu diote irtenbidea danborradaren arazoari. Azkenean, hainbeste eztabaidaren ondorioz, araudia aldatzea erabaki du Udalak. Eta, azkenean, talde berriek danborradan parte hartzeko aukera izango dute. Aurten, guztira, 17 taldek hartuko dute parte San Sebastian bezperako danborradan, azken urteetan atera den beste talde bat gehitu baitzaio: Julian Barrenetxea abesbatza, hain zuzen ere.

Leku arazoak direla eta, Julian Barrenetxeakoak San Sebastian eguneko banderaren jaitziera izan dira danborra jotzen eta ez helduen danborrada ospetsuan, bezperako danborrada nagusian, alegia.

Sansebastianak azpeitiar askok parte hartzen duten festa dira, baina parte-hartze hori azkeneko urteetan ez da handitu, ez delako talde gehiagorik aurkeztu ez helduen danborradan ez eta umeen danborradan ere. Iaz sortu ziren eztabaidak direla eta, Udalak bezperako danborradan parte hartzeko aukera zabaldu du, eta beste hiru taldek eman dute izena: Oilo Zoro kultur elkarteak, Zulo Zabala elkarteak eta Julian Barrenetxea abesbatzak.

Hauek guztietatik, Julian Barrenetxea bakarrik irtingo da bezperako helduen danbo-



Danborradako talde guztiak bilduta, Azpeitiko Enparantza Nagusian, iaz.

rradan. Izan ere, talde horrek duela hiru urtetik hartzen du parte San Sebastian egunean egiten den bandera jaitzierako danborradan.

Hau guztia danborradan parte hartzeko legedia aldatu egin delako lortu da. Bertan zehazten denez, Azpeitiko Udala izango da danborradako antolatzaile bakarra, eta, beraz, arduradun bakarra. Baina Udalak danborradako

batzordea beti jakinaren gainean izango du. Parte-hartzeari dagokionez, bost urtean behin zabalduko dizkie ateak helduen danborradan parte hartu nahi duten talde berriei.

Talde horiek, gutxienez 40 danbor jolek eta gehienez 56k osatu beharko dituzte. Baina zigorrak ere izango dira: janzerak ez errespetatzeagatik; onartuta dauden musika doinuak jo beharrean, beste

batzuk jotzeagatik; eta baimendu gabeko taldeek danborradan parte hartzeagatik.

Biharko bandera jaitziera, lau talde egongo dira Azpeitiko kaleak danbor hotsez betetzen: Julian Barrenetxea abesbatza, Gure Ametsa, Ardozaleak eta Zezen zaleak taldeak. Duela hiru urtera arte, bi talde bakarrik izaten ziren bandera jaitziera. Izan ere, legedia aldatu duten arte, danborradan talde

TALDE BERRIA

Julian Barrenetxea abesbatza aterako da bezperako danborrada nagusian


berriren batek parte hartu nahi izanez gero, San Sebastian egunean bakarrik egin zezakeen. Julian Barrenetxeakoak animatu egin ziren, eta egun horretan atera ziren lehen aldiz danborra jotzen. Baina danbor eta barrika kopuruak berbera izan behar duenez, bezperan ateratako talde bat gehiago ere irteten zen urtarrilaren 20an.

Lekuaren arazoa

Aurten, behintzat, eman diote irtenbidea. Orain arte, kiosko atzean hutsune bat gelditzen zen. Izan ere, tarte horretatik ez da udaletxea ikusten, eta bertan egoten da festaren gune nagusia gaueko hamabietan; bertan, talde guztien banderak egoten baitira.

Aurten, tarte hori betetzea erabaki du Azpeitiko Udalak eta bertan sartuko da, gaur, talde bat. Gure Ametsa, hain zuzen ere.

ALTZARIAK
Gure AMETSA



Landeta Hiribidea, 1
 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 151 681 • Faxa: 943 150 605
 Web gunea: www.gureametsa.com

